

Serie berri bat Eleria-ren eskutik

Eleria-ren ale honekin batera, *Testuak* izeneko serie berri bat sortu dugu, zeinaren bidez, ohikoaz gain, aldizka gai desberdin bati buruzko liburuxka bat eskainiko baitizuegun gure aldizkari juridikoaren bitartez.

Serie honi hasiera emango dion lehenengoak *Lan Zuzenbidearen iturriak* du izenburutzat, eta horixe da hain zuzen ere Koldo GOROSTIAGA, Koldo IRURZUN eta Mikel URRUTIKOETXEA irakasleek bertan ikuspuntu didaktiko batetik landu duten gaia. Hasiera batean Lan Zuzenbidea ikasgaitzat daukaten ikasle euskaldunei bideratuta egon arren, interesa daukan orori dago zuzenduta liburu hau, eta eskuratu ahal izateko ez dago zertan *Eleria*-ko harpidedun izan behar.

Liburuxka honen edukiari buruz, labur-labur esan testua bost ataletan banaturik dagoela: lehenengoan, Lan Zuzenbidearen iturriari buruzko aurkezpen xume bat egiten da, eta aldi berean iturrien eskema orokorra aurkezten. Bigarrenean, Estatuaren iturriak lantzen dira (Konstituzioa, legeak eta erregelamenduak). Hirugarrenean, Nazioarteko Iturriak aztertzen dira (LANEren hitzarmenak eta Europako Batasunetik datorren zuzenbidea). Laugarrenean, Bestelako Iturriak izenburupean, hitzarmen kolektiboak, ohitura eta Zuzenbidearen Printzipio Orokorrak ditugu aztergai, eta, azkenik, bosgarrena, Lan Zuzenbidea aplikatzeko erregela bereziaz aritzen da.

Lan Zuzenbidearen iturriari buruzko liburuxka honek Eusko Jaurlaritzako Lan Sailburuordetzaren laguntza jaso du. Ondorioz, doan banatuko da *Eleria*-ko harpidedun izanik berau jasotzeko nahia adierazi dutenen artean, eta 1000 pezetaren truke eskuratu ahal izango dute, aldiz, harpidedun ez izanik lortu nahi dutenek.

Bitzita luze eta emankorra opa diogu serie berri honi, zuen guztion interesekoa izango delakoan.



Euskararen Normalkuntzarako Legearen XVII. urteurrena dela eta

Euskararen Erabilpena Normaltzeko Legea 1982. urtean eman zuen argitara Gasteizko Legebiltzarrak. Jakina denez, aurreko berrogei urtetan ahopean erabilitako hizkuntza baten hil ala biziko kontuak ziren ordukoak. Egoera hartan euskararen biziraupen eta hazkunderako ezinbestekoa zen prozesu bat jarri zuen martxan Legeak. Orditik hona denbora puska bat iragan da, eta prozesu orok bezala, Euskararen Erabileraren Normaltze Legeak martxan jarritakoak ere, hamazazpi urtetan indarrean egon ondoren, ebaluazio eta balorazio bat behar zituen. Egokiera ona zen Legearen azterketa sakon bat egiteko. Azterketa horren helburuak bi ziren: batetik, legearen arau mailako garapena eta aplikazio maila sakonean aztertzea eta, bestetik, etorkizunera begira, arautze ildoek nolakoak izan behar duten iradokitzea.

Horren aurrean, ELERIAK Euskararen normalkuntzaren gaineko gogoeta bultzatzeko jardunaldi batzuk iradoki zituen. Antolatzekeo babesari, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta Eusko Ikaskuntzak berak eskaini zuten. Erakunde horien ordezkariak batera harturik gogoeta ildo batzuk markatu zituzten, denak ere 1982ko Legearen gaineko hausnarketatik abiatuz. Eta hizkuntza eta lege kontuetan adituak biltzen zituen jardunaldi batzuk antolatu ziren, azkenik, Joxerra Bengoetxea eta Itziar Alkorta, EHUKo Zuzendide irakasle eta Eusko Ikaskuntzako kideen ardurapean, eta Koro Garmendiarekin batera, jardunaldien idazkari izan dena. Donostiako Miramar Jauregian egin ziren uztailaren 1 eta 2an. Gurekin batera, dela antolamenduan, dela iradokizunetan lagun izan ditugu, bereziki, Josu Erkoreka, HAEEko zuzendari dena; antolamenduan, berriz, RIEV aldizkaria, eta haren zuzendaria, Gregorio Monreal. Baita Iñaki Agirreazkuenaga, zeinaren iradokizunak arras baliagarri izan ziren, eta Josemari Velez de Mendizabal, Eusko Ikaskuntzaren izenean bere laguntza osoa eman baitigu.

Edukiak, partehartzaileak eta metodologia

Abiapuntu bezala, Euskararen arauak berak bereizten dituen hizkuntza normalkuntzaren aplikazio eremuak aztertu nahi ziren, eta, horretarako, legeak jasotzen dituen hiru esparruak hartu genituen lanerako ardatz. Ordea, hiru esparruez gain, legean trataera eskasa izanagatik ere, azken aldian nabarmendu den beste gai bat ere jaso behar zela iruditu zitzaigun, Justizia Administrazioarena, hain zuzen ere. Lau lan-arlo zedarriztatu ziren beraz: Hezkuntza, Administrazioa, Komunikabideak eta Justizia Administrazioa.

- *Hezkuntza*-ri zegokionean, Mikel Zalbide, Jaurilaritzako Hezkuntza Sailekoa, *Irakaskuntza ez unibertsitarioko hizkuntzaren normalkuntzaz* arduratu zen; Andoni Bergara, abokatua, *Euskal Herriko unibertsitateen hizkuntza ereduez*, eta, Andoni Barreñak, Salamancako Unibertsitateko euskal filologiako irakaslea, berriz, *Hizkuntzaren kalitatea irakaskuntza sisteman* landu zuen. Itziar Idiazabal EHUKo irakasleak zuzendu zuen debatea.
- *Administrazioa*-ren gainean aritu ziren Iñaki Agirreazkuenaga, EHUKo irakaslea, *Euskara Administrazio Publikoetan* landu zuena, eta Josu Erkoreka, HAEEKo zuzendaria, *Euskararen erabilera Administrazio Publikoaren barne-harremanetan* gaiaren inguruan aritu zena. Mahai horren zuzendari Gotzon Egia izan genuen, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara arduraduna.
- *Komunikabideak* jorrazteko hainbat aditu bildu ziren Javier Diaz Noci, EHUKo irakaslearen ardurapean: Hasier Etxeberria idazle eta kazetaria *Euska Irrati Telebistaz* aritu zen; Martxelo Otamendi, Euskaldunon Egunkariaren zuzendaria, *Hedadura nazionalako prentsa eta aldizkariak*; *Komunikabide lokalak* gainean berriz, Arrasate Press-eko Joxe Mari Mujika aritu zen; eta, azkenik, Josemari Velez de Mendizabal idazle eta Eusko Ikaskuntzako gerenteak *Euskara Interneten* landu zuen.
- *Justizia Administrazioa*-ren gaineko gogoeta, Abel Muniategi Justizia sailburuordearen gidaritzapean egin zen. Bertan izan genituen Jaime Tapia epailea, Arabako dekanoa dena, eta Patxi Etxeberria, EHUKo irakaslea.

Azterketa osatzeko beste ikuspegi batzuk jorrazteko behar ziren, hala nola,

- *Euskararen Legearen sorrera eta eztabaida*, Pedro Miguel Etxenike, garaiko Kultura saiburuak, eta Jose Luis Lizundia, orduko Euskadiko Ezkerrako legebiltzarkideak egin zutena;
- ikuspegi konparatua, berriz, eskaini ziguten Antoni Milian i Massanak, zeinak *Kataluniako Hizkuntza Politikarako Legeak dakartzen berrikuntzak* aztertu baitzituen eta Xabier Iriondok, *Nazioarteko eta Europar Batasuneko ordenamenduetan hizkuntza eskubideen babes juridikzionala* jorrazteko.

Hirugarrenik, azken urteetako hizkuntza politikak aztertu behar ziren, eta hartarako

- *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia* azaldu zigun Xabier Aizpuru, Jaurilaritzako Hizkuntza Politikarako ordezkariak
- eta, *Euskararen Aldeko Akordioa*, Kontseiluko arduradunak berak, Xabier Mendiguren Bereziartuk.

Azkenik, itxiera hitzaldi gisa, *Europar Batasuneko hizkuntza politikaren* berri izan genuen Peter Dyrberg-en eskutik, *Ombudsman*-aren bulegoko arduraduna.



Argitarapena

Horiek guztiak izan ziren aztergai bi lanegunetan zehar. ELERIA aldizkariaren asmoa, adituen idatzizko lan guztiak bilduko dituen argitarapen bat egitea da, aldizkariaren ale monografiko bat osatuko duena. Jardunaldi hauei buruzko xehetasun gehiago Eusko Ikaskuntzako RIEV aldizkarian aurki ditzakezue, zeina gurekin batera aritu den Jardunaldi hauen antolamenduan lanean, gazteleraz eman dituelarik argitara bere azken alean. Bestetik, gorago aipatu mahai ingurua, lan-taldeen zuzendari guztiak eta bertan jasotako emaitzak laburbildu zituena, Euskonews aldizkari elektronikoa duzue entzungai (<http://www.euskonews.com>).

